

## Bilbon, 2000.eko abenduaren 22an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
M. Azkarate,  
P. Charritton,  
J. L. Davant,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
F. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
J. M. Satrustegi,  
Andres Urrutia eta  
Patxi Zabaleta  
euskaltzainak,  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea.

Plaza Barriko egoitzan bildu da Euskal-  
tzaindia, 2000.eko abenduaren 22an, hi-  
leroko batzarra egiteko. Bilerari goizeko  
10ak eta erdietan eman zaio hasiera. Bil-  
dutakoen izenak ezkerreko zutabeen ja-  
soak ageri dira. Ezin etorria adierazi dute  
P. Altunak, X. Diharcek, Pello Salaburuk,  
Ibon Sarasolak eta A. Zavalak.

### *Aurreko batzar-agiriak onartzea*

Inork ez du oharrik egin eta aho batez  
onartu dira azaroko bi agiriak

### *L. Villasantek utzitako hutsartea*

Euskaltzainburuak hil berri den L. Villa-  
sante gogoratu du bileraren hasieran.  
Legeenez, hutsartea aldarrikatu du eta  
hautagaiak aurkezteko bi hilabeteko epe-  
ari hasiera ematen zaiola aditzera eman.  
Bozak martxoan izanen dira.

Hilberri txostena San Martin jaunak pres-  
tatuko du. Urtarrileko bilkuran egingo da.

### *1. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua*

#### *1.1. Unibertsitateko jakintza arlo nagusietako terminologia biltzeko lan-proposamena.*

Izenburu horrekin aurkeztu du Xabier Kintanak, eskatu zitzaion bezala, bere pro-  
posamena. *Hiztegi Batuko* bigarren itzulirako irakaskuntza arloan premiazkoenak diren  
hitzen bilketa nola egin aurkeztu du. Arlo desberdinetako informatzaileez baliatuko da  
hitzak biltzeko. Informatzaile hauei helaraziko zaien gutuna ere aurkeztu du Kintanak.  
Asmoa martxoaren amaierarako proposamenak eskuan izatea litzateke. Gero, bahetze  
lanaren ondoren, euskaltzainei helaraziko zaizkie zerrenda desberdinak.

Aurkezpenaren ondoren, zenbait argitasun eskatu diote euskaltzainek txostengile-  
ari. Knörr jaunak bere bildurra agertu du “galbahetzeaz”: hitz samalda hori behar be-  
zala iragaztea arazo izan liteke. Iturrien fidagarritasuna ere ongi neurtu behar litzate-  
ke. Kontuan hartu behar da, halaber, nazioarteko hitzak diren ere.

Miren Azkaratek ongi iritzi dio proposamenari, baina tentuz ibili behar dela uste  
du berrehun hitzeko multzo hori proposatzeko ahal horrekin. Arkitekturen, adibidez,

zail ikusten du kontua. Bereizi egin beharko litzateke arloen artean. Bigarren itzulian zer sartzea komeni den erabaki behar da, zuhurtasunez jokatzu.

Kintanak erantzun dio esanaz informatzaileei emateko diren oharren artean bi multzo daudela: garrantzitsuak eta garrantzizko izanda ere, bigarren mailakotzat hartzen direnak. Honen arabera, gauzak txukun samar eraman litezke. Egingo den lanak unibertsitaterako balioko du eta, aldi berean, Euskaltzaindiarentzat.

Beñat Oihartzabalen ustez, jakintza arlo batzuetan oso kontzeptu zehatzak badira ere, beste batzuetan oso labainkorrak dira. Horrelakoetan lekukotasuna eta testuingurua ematea behar beharrezkoa da.

Urrutiak gaineratu du Administrazio arloko lantaldean ere hasi direla urratsak egi-ten eta Kintanaren teknika bera aplikatuko dutela. Fitxak talde guztietan bateratsu egi-tea komeniko litzatekeela uste du. Bestalde, prestatzen diren zerrendak alfabetoaren arabera aldian-aldian tartekatzen joan beharrean, saio berezietan aztertzea eta onartzea komeniko litzatekeela esan du. Bidezko ikusi da eta hala erabaki da.

### 1.2. *Instituto Geográfico Nacional delakoaren zerrendan zintzilik utzitako "paso entre montañas" onartzea.*

Onomastika batzordeko buru gisa, Knörr jaunak behar zen kontsulta egin zuen "paso entre montañas" horren adiera zehatzaz. Onomastika batzordean aztertu da kontua eta *mendi lepoa* proposatzen dute ordain egokituz. Bateko eta besteko iritziak eman dira. Azkenean bozkatu da eta hamabi boto izan ditu proposamen honek bere alde. Bi hitzetan emango da eta ez elkarturik.

### Araugai berrien aurkezpena

Batetik, *Hiztegi Batuko a-aberats* zerrendari Urrutiak, Kintanak eta Satrustegik egindako oharrek jaso dituzte euskaltzainek hurrengo bileran aztertzeko.

Gramatika batzordetik iritsitako hiru araugai berri ere eskuratu dituzte euskaltzainek, hurrengo bilkurarako oharrek egiteko: a) *Behar izan* aditzaren jokabidea aditz iragangaitzekin; b) *nahi/gura izan* aditzen jokabidea aditz iragangaitzekin eta c) zehargaldera orokorretako aditz-atzizki indargarria: *-(e)nenz, -(e)netz, -(e)netz*.

### 2. 200. urterako egutegia

Jose Luis Lizundiak aurkeztu du 2001.eko egutegia. Irailean, Lafitteren omenaldia dela eta seigarren egun bat gehitu behar zaiola esan du. Onartu da. Horrenbestez, larunbatean, irailaren 22an, ekitaldi berezi bat izango da Lafitteren figuraren inguruan.

### 3. Eskuartekoak

#### *Iratzedarren euskaltzaintzari uko egitea*

Iratzederri eta Belloc-eko abadeari idatzitako gutunak irakurri ditu euskaltzainburuak. Ondoren, Iratzeder jaunak erantzundakoa irakurri du. Euskaltzaindiaren barne-erregiek diotenarekin bat, hiru hilabete pasatzen uztea proposatzen du euskaltzainburuak. Horien buruan ikusiko da zer egin behar den kasu honetan. Ontzat eman da proposamena. Nolanahi ere, Satrustegi jaunak adierazi du Iratzedarren gutunak arauak

eskaten duena ongi betetzen duela. Hiru hilabeteko epe horretan eska lekizkiokeen arrazoiak emanak dituela jadanik. Epeari eusteari ongi deritza, baina arrazoi gehiago eskatzea ez dela komeni, horrek sor lezakeen nahasmendua alferrikakoa izango bailitzateke.

*Conseil Général des Pyrénées Atlantiques delakoarekiko hitzarmena.*

Euskaltzainburuak Kontseilu Nagusiarekin sinatutako hitzarmenaren berri eman du. Orain Euskaltzaindiak diru laguntza handiagoa izango du. Hitzarmenaren hizkuntzaz ere gorabeherak izan dira. Bayrou jaunaren gutunaren kopia eman zaie euskaltzainei non onartzen baitu Euskaltzaindiarekikoa euskaraz ere emango dela. Gutun horretan interesgarriena, euskaltzainburuaren ustez, Erakundeari aitortzen zaion "autorité incontestable" delako hori da. Biarnesekin ere gauza bera egingo da. Eta hori aurrerapauso handitzat har daiteke Frantzian: Administrazioak hizkuntza txikiei ere men egin behar izan baitie.

*Nafarroako Gobernuaren dekretu berria euskarari buruz.*

Nafarroako Administrazioan euskararen erabilpena mugatuko duen dekretu berria dela eta, Euskaltzaindiak bere jarrera agertu beharra duela ikusi du Zuzendaritzak. Gutun-zirriborro bat prestatu du Andres Iñigok, Andres Urrutiaren, Patxi Goenagaren eta Jose Luis Lizundiaren laguntzarekin eta hori aurkeztu zaie euskaltzainei. Oraingoz ezagutzen den testua ere banatu zaie euskaltzainei, egin diren aldaketak behar bezala marokatuta.

Satrustegi jaunak gogorarazi du dekretuaren testu ofiziala ez dela oraindik atera. Beraz, haren proposamena da behin-behineko testua onartzea eta gero, zerbait aldatu behar izanez gero, aldaketak egitea. Zabaletaren aburuz, gutuna ez litzateke bidali behar dekretua atera arte. J. San Martinek testua postaz bidali beharrean eskuz-esku eta gauzak azalduz egin beharko litzatekeela dio. Bestalde, "Lingua navarrorum" delakoa aipatzeari garrantzi handia ematen dio. Aipatzea onartu da. Beste zenbait ohar ere egin dira. Horiek guztiak prestatuko da testu berria.

*Argitalpen berrien banaketa*

Aspaldi agindutako bi CD ROM banatu zaizkie euskaltzainei: batetik, *Euskera* aldizkariarena (1919-1979) eta *OEH-ko testu-corpora*. Bigarren hau behin-behineko lana da, Euskaltzaindiaren batzordeetan eta erabiltzeko moldatua. Biak *Aurten Bai* Fundazioak prestatu ditu.

*Hiztegi Batua*-ren argitalpena ere banatu zaie. Hau *Euskera*-ren ale berezi gisa kaleratu da. Hau dela eta, Satrustegi jaunak galde egin du ea pentsatu den *Hiztegi* honen aurkezpen on bat egitea. Haritschelhar jaunak esan dio Zuzendaritza berriak ikusiko duela zer egin eta nola.

Eta horrenbestez, hamabiak eta erdietan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*